


# Barazkiak eta loreak

## Eskolan egiteko ariketak





# Bisita egin baino lehen

## Lurraren konposizioa aztertzen

Lurra zentzu batean, izaki bizidun bat bezala kontsidera dezakegu: jai, bizi eta hil daiteke. Lur produktiboek zaintzak behar dituzte bizirik irauteko. Zainketa hauek ezin dira edonolakoak izan, oreka bat bilatu behar da lurra osatzen duten konposatu guztien artean. Lur baten %45a materia mineralak osatzen du, airea eta urak %25a bakoitzak eta materia organikoak %5a. Partikula mineral horien arabera lurrak hareatsuak, limotsuak edo buztintsuak izan daitezke. Mota hauen artean, zein uste duzu dela egokiena landareak landatzeko?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

 *Esperimentu honen bidez lurraren propietate fisiko batzuk ezagutuko dituzu:*

### 1. Ura gordetzeko ahalmena

#### Materialak:

- 3 ontzi berdin
- 3 inbutu
- Filtro papera (kafeterakoa bezalakoa)
- Ura
- Substratuak: harea, limoa, buztina

#### Prozedura:

- Filtro papera inbutuetan jarri
- Substratu mota bakoitza inbutu batean jarri
- Inbutu bakoitza ontzi batean jarri
- Ur kantitate bera bota bakoitzari
- Minutu batzuk itxaron eta kalkulatu filtratu den ur kantitatea

	Harea	Limoa	Buztina
Jasotako ura (litroak)			





## “Sherlock Holmes” antzera...

Baratz edo zelai bateko lurra hartu (baimena eskatuz) eta xehatu ondoren aztertu bertan azaltzen diren izakiak: zizareak, intsektuak ... eta mikroskopioa erabiliz izaki txikiagoak ere.

 Identifikatu eta bakoitzaren zeregina aztertu:

· Lurra lantzea arte bat da, ezagupenak eta teknikak menderatu behar dira inguru natural bat eraldatu al izateko. Zein helbururekin uste duzu sortu zela nekazaritza?

· Zergatik ez dira haziak, beste inolako prestaketarik gabe ereiten?

.....

.....

.....

.....

## Bisita egin eta gero

### Herbarioa

Herbarioa ikerketarako, kontsultarako edo bildumarako balio digun landareen katalogoa da. Herbarioa egitea ez da zaila, baina denbora eta dedikazioa eskatzen du.

 Hauek dira jarraitu beharreko pausuak. Animatzen al zara?

#### 1. Materiala jaso:

Beharrezko materiala:

- Guraizeak
- Paperezko poltsa
- Koaderno
- Arkatza

Prozedura: mendira egiten dituzuen irteeretan herbariorako laginak hartu. Horretarako, beharrezkoa dugun zatia bakarrik guraizearekin moztuko dugu, gainerakoa kaltetu gabe. Materiala poltsetan gordeko dugu, izena, hartutako lekua eta data jarriaz.

2. Materiala lehortu: materiala ez deskonposatzeko edo intsektu eta lizunek ez kaltetzeko.





Materiala:

- Filtro papera edo egunkarietako papera
- Etiketak
- Objektu astunak: liburuak...

Prozedura: laginak filtro edo egunkarietako paperean kontu handiz jarri, beraien ezaugarrien etiketa eta guzti. Laginak separatzeko paper gehiago jarri, eta denak ditugunean, pisua jarri lehortu eta zapaldu daitezzen. Bertan utzi behar adina denbora.

3. Muntaia eta materialaren kontserbazioa

Materialak:

- Kartulina edo paper orri lodiak
- Kola
- Etiketak
- Boligrafoa

Prozedura: Kartulinetan lagin bakoitza pegatu eta ondorengoa adierazten duen etiketa jarri.

- Espeziearen izen zientifikoa
- Jasotako lekua
- Jasotako data

 Zergatik ateratzen ditu jende askok loreak logelatik gaez?

.....  
.....  
.....

*Barbetxoa edo lurralde bat "lugorri uztea" zer den bila ezazu eta zein abantailak suposatzen dituen idatzi. Hori egiten ez bada, zein da ondorioa?*

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

"Baserria, natur eskola bizia" programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitez zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!